

ERMUA ETA MALLABIA ARTEKO URTIA INDUSTRIALDEAREN KUDEAKETA- ETA JARDUERA- PLANA LANTZEA

Posted on 19/06/2025 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Industrialdeen berroneratzea](#), [Lurralde-estrategia eta gobernantza](#), [Tokiko eta lurraldeko lehiakortasuna](#)

[Ermuko Udalak](#), [Mallabiko Udalarekin](#) lankidetzan, NAIDERen laguntza teknikoa izango du Urtia Industrialdeko Kudeaketa eta Jarduera Plana egiteko. Industrialde hori bi udalerriek partekatzen dute, Bizkaian, enklabe estrategiko batean. Haren kontserbazioa, hobekuntza eta egokitzapena bultzatzeko, proiektuak bere gobernanta-eredua indartzea eta poligonoaren lehiakortasunerako berroneratze-prozesu bat abian jartzea azpimarratuko ditu.

Asistentziaren esparruan, poligonoaren egoeraren azterketa xehatua egingo da, lehentasunezko ekintza-ildoak zehazteko. Kudeaketa Plan bat artikulatuko da, Urtia Industrialdeko Enpresen Elkarte berrirako adostutako gobernanta-esparrua barne hartuko duena, eta bideragarritasun operatiborako ibilbide-orri bat ere izango du.

Urtia industria-gune garrantzitsua da eskualdearentzat. Industrialdeak lotura nabarmena du, AP-8 autobidetik eta Bilbo-Donostia trenbidetik gertu baitago, eta inguruko industria-tradizioa islatzen duten enpresak ditu, bereziki automobilgintza, metalurgia eta manufaktura sektoreetan.

